48 01
SALDROPO HEZEGUNEA


Zohikaztegi bat lurralde harroa eta urez beterikoa da, Sphagnun generoa (zohikaztegi goroldioak) eta azidofilo motatako beste batzuk nagusitzen diren begetazio batek estalita. Haien hildako zatiak pilatzen eta estratifikatzen dira airerik ez dagoen hondoetan, eta ondorioz, zohikatza sortzen dute. Zohikaztegiak natura interes handiko gunetzat jotzen dira.

Zohikatza jatorri sedimentarioko material organiko bat da eta berezko ezaugarria karbono ugari izatea da (%55era arte). Ez da oso trinkoa, baina oso porotsua da eta oraindik ikaztu gabe dauden hondakin begetalak ditu. Lehortu ondoren, erregai gisa (baina antrazita, harrikatza edo lignitoaren ahalmen kalorifiko gutxiagorekin) edo lorezaintzan, laborantza begetalerako substratu gisa erabiltzen da.

Bizkaiko Zeanuri udalerrian kokatutako Saldropo izeneko parajean zohikaztegi bat izan zen. Bertan, 57.000 m2 inguruko bere azaleran, 2 eta 2,45 m arteko altuerako zohikatz biltegi bat pilatzen zuen eta haren historia laburra jarraitu daiteke ortoargazkien bidez.

Hura paraje osasungaitza zen, bertan, ziur aski, eskualdeetan izaten ziren bruzelosi (Malta sukarra) izurriak sortzen ziren, ganaduari (behiak, ardiak, etab.) eta harekin kontaktuan izaten ziren pertsonei kalte eraginez. Paraje hura zen elurrik gabe geratzen zen inguruko lehenengo lekua, eta horrenbestez, animalia ugarik bertara jotzen zuten. Badirudi horietako batzuk harrapatuta geratzen zirela paduran, kiratsa eraginez eta intsektu anitzen habitata eratuz.

Egoera hori zela eta, 1925. urtean inguru, Francisco Basaguren jaunari enkargatu zitzaion hezegune hau eta inguruko beste batzuk lehortzea, Saldropoko zohikatza ustiatzearen truke. Ustiapen hari “Mina Patxi” deitu zitzaion eta 1930eko hamarkadan zehar ustiatu zen nagusiki, zohikatza ondoren erregai gisa saltzeko ateraz.



Zohikaztegi zaharraren inguruko bloke-diagrama. 1.: Atlantiko/mediterraneo isurialdeen banalerroa. 2. Zohikaztegia. (Irudiaren iturria: M García Antón [et al.]).

Guda zibilean aprobetxamendu murritz hau eten egin zen, baina 1974. urtean berriz jarduerari ekin egin zioten. Hala ere, oraingo honetan, zohikatza begetalen laborantzarako substratu gisa erabiltzeko ustiatu zuten, eta ustiapen hura hala mantendu zen 1985era arte, talde ekologisten presioen eraginez, jarduera itxi zuten arte. Hura gertatu zen zohikatza guztiz ateratzen zenean.




Zohikatzaren ustiapena (marroi iluna) 1986. urtean (Argazkia: I. Zorrakin).

1991ean, Bizkaiko Foru Aldundiak zonaldea zaharberritzeko plan bat garatu zuen, beraz, zohikaztegi zaharra, gaur egun, hezegune bat da. Bertan, ahal izan den neurrian, jatorrizko zirkulazio hidraulikoa berrezarri da, eta zume ugari eta beste espezie begetal ugari hazten dira, besteak beste, Sphagnun generoko batzuk, alegia, mendeak igaro ondoren, nolabait, zohikaztegi batek berezkoa duen natura interes elementu hori lehenera ekar zezaketenak. Gaur egun, zonaldea la Red Natura 2000 eta Gorbeia Parke Naturaleko sareen barne dago.



Sadropoko hezegunea. Argazkia: CC BY-3.0-ES 2012/ EJGV/Irekia-Eusko Jaurlaritza/Pedro Odriozola.

Gehiago jakiteko: Análisis geomorfolófico y palinológico de la turbera de Saldropo / Mercedes García Antón, [et al.]. - Lurralde, N. 12 (1989), p. 25-44.



Ortoargazkia 1945-46. Amerikar hegaldia, A bilduma.

Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala.

UTM 30N ETRS89 X: 522267 m Y: 4766597 m.



Ortoargazkia 1983. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco. geoEuskadi. Bizkaiko Foru Aldundia.

Egiazta daiteke zohikaztegia ustiatzen ari direla, nahiz eta haren %60 inguru desagertu izan.



Ortoargazkia 2015.Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.

Argi ikus daiteke, burututako esku-hartzearen ondoren zohikaztegia ordezkatu duen hezegunea. Argazkiaren ezkerraldeko eraikin txikia hezegunearen interpretazio zentro bat da.